



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2021/01/26an EGINDAKO OHIKO
UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA
CORPORACIÓN. Día 26/01/2021.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Ander Errarte del Pozo
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2021eko urtarrilaren 26an, arratsaldeko 18:00etan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela, eta goian aipatutakoen parte hartzearekin, TELEMATIKOKI bildu da Udalbatza, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaietarako hitz egiteko. Ez da etorri Purificación Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 26 de enero de 2021, TELEMÁTICAMENTE quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten: Purificación Regidor Varela

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAB94WL.sdx4>

2021/01/26
Ohiko osoko bilkura
Pleno ordinario

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2020/10/20, 2020/11/24 eta 2020/12/21

2.- ZINEGOTZI BERRIAK KARGUA HARTZEA.

Udalbatzarrari jakinarazi zaio Leire San Vicente Carrillo andreak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75. artikuluan aurreikusitakoa betez, ondare ondasunen, balizko bateraezintasun kausen eta diru sarrerak eman ditzaketen jardueren aitortpena egin duela dagokion interesen erregistroan inskriba daitezen, eta horrela, zinegotzi kargua hartzeko legezko tramiteak beteta, Udalbatzarrak Leire San Vicente Carrillo andreak bere kargua eman dio.

3.- ZINEGOTZIA BATZORDE INFORMATZAILEETAKO KIDE BERRI IZENDATZEA.

Eskoriatzako Elizateen Elkartea (EEE) taldeko zinegotziak berak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, ERABAKI DA Leire San Vicente Carrillo zinegotzia ondorengo batzorde informatzailetako kide izendatzea:

- HIRIGINTZA, MUGIKORTASUN ETA INGURUMEN BATZORDE INFORMATZAILEA.
- PERTSONAL ETA OGASUN BATZORDE INFORMATZAILEA.

4.- ZINEGOTZI BERRIA ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEA (EEE) UDAL TALDEAN SARTZEA.

2019ko ekainaren 26an egindako ezohiko osoko bilkuran Eskoriatzako Elizateen Elkartea (EEE) taldea eratu zen, eta bertako bozeramale izendatu zen Iñaki Kerejeta Gorostiza.

Iñaki Kerejeta Gorostizaren heriotzaren ondoren, zinegotzi kargua hartu du Leire San Vicente Carrillo, Eskoriatzako Elizateen Elkartearen (EEE) bozeramale berria izendatu izan dena.

5.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2021eko urtarrilaren 21era arte hartutako erabakien berri eman da.

Nestor Aranak Luis Ezeiza ikastetxean, kiroldegian eta kultur etxean balbula termostatikoak instalatzeko hartutako erabakiei buruz galdetu du.

2021/01/26
Ohiko osoko bilkura
Pleno ordinario

Josuk erantzun dio jasagarritasuna hobetzeko planaren barruan sartzen diren jarduerak direla, eta kontsumoa ikuspegi energetikotik zein ekonomikotik murrizteko direla.

Era berean, jakinarazten zaio erabaki horiek esleipenei eta gastuak onartzeari buruzkoak direla, baina horrek ez duela esan nahi oraindik gauzatuta daudenik.

Berariaz eman da 18. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakiaren berri.

6.- 2021eko AURREKONTUA ONARTZEA.

Hitza emanda, onartzeko aurkezten den aurrekontu-proiektuaren aurreikuspenen laburpena egin du Josu Ezkurdiak: (zinegotziak berak emandako informazioa transkribatzen da): *"2021eko aurrekontuetako diru-sarrerak 5.497.404 eurokoak izango dira, hau da, 2020an baino 350.507 euro gutxiago. Inbertsioak egin ahal izateko 425.000 euroko mailegua eskatzea planteatzen dugu. Zorionez, une honetan Udalaren zorpetze-maila zero da, eta planteamendu horrekin esan dezakegu aurrekontuak orekatuak direla, diru-sarrera arruntekin finantzatzen baitira gastu arrunta eta Covid-19ak sortutako egoerari aurre egiteko plan berria. Eta, esan bezala, mailegua inbertsioak egiteko baino ez da erabiliko. Covid-19ari aurre egiteko plan bat jarri nahi dugu martxan, aurreko urtean bezala. Plan horrek 347.000 euro izango ditu, hau da, 2020an baino % 26 gehiago. Gizarte-babeseko programetan 90.811 euro aurreikusten ditugu (hau da, aurreko urtekoaren bikoitza); garapen ekonomikoan, 227.469 euro (aurreko urtean baino % 16 gehiago). Ostalaritzarako, merkataritzarako eta enpresa txikietarako dirulaguntzak 56.500 eurokoak dira, erosketa-bonuak 40.000 eurokoak eta inbertsio publikoa 86.096 eurokoa. Eskoriatza Bizirik ekimenerako 251.000 €, gizarte-bizitza bultzatzeko eta kultura eta kirol ekimena ingurune seguruetan sustatzeko. 500.000 euro baino gehiago bideratu dira inbertsioetara, gehienak irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Elizateetarako 100.000 € bideratu dira".*

Josuk bere txanda amaituta, Eluska Irauzuk, EH BILDUREN bozeramaileak, hartu du hitza. Josuri eskerrak eman dizkio esandakoengatik, eta adierazi du bat datozela proposatutako jarduera gehienekin (gizarte-laguntzak, Bidebarrietarako bidea...). Esan du bere taldeak 10 proposamen egin dituela eta oso labur aipatu nahi dituela. Hala, horiek aipatzen ditu:

- 30.000 bideratzea ostalaritza-sektoreari laguntzak emateko.
- Merkataritzan kontsumitzeko bonuen partida mantentzea, hau da, 16.760 euro, baina emateko formatua aldatzea, familien egoera ekonomikoa kontuan hartuta ematea.
- 5.000 euroko partida bat aurreikustea lehen sektorea bultzatzeko.
- Ludotekara bideratutako partida 500 eurotan handitzea, eskaera handia duen horrelako zerbitzu batek ez duelako inolako murrizketa ekonomikorik izan behar.
- 1.000 euro gehiago bideratzea PAUSO BERRIAK programarako.

2021/01/26
Ohiko osoko bilkura
Pleno ordinario

- 3.000 euroko partida bat aurreikustea GATZ-BIDEA programarako.
- 5.000 euroko partida bat aurreikustea "Itsasoa Eskoriatzan hasten da ekimena" proiekturako.
- 8.771,10 euroko partida aurreikustea, konpostaje-eremuak 63/2019 Dekretuaren eskakizunetara egokitzeko.
- 30.000 euro aurreikustea Intxaurtxuetako irisgarritasuna hobetzeko jardueretarako.
- Liburuak erosteko partida 2.000 eurotan handitzea.

Galdetuta, Leire San Vicente Eskoriatzako Elizateen Elkarteko bozeramaileak esan du ez duela ezer gehitzeko.

Jarraian, honako hauek hartu dute hitza:

Josu Ezkurdia: *"Egia da EH BILDUK zuzenketa batzuk aurkeztu zituela, eta, horren ostean, haiekin negoziazio tramite bat ireki genuen, baina, Eluskak esan duen bezala, bi taldeak proiektu askorekin ados egon arren, eta biok herriarentzat lanean ari garenez helburu askotan bat etorrita ere, prozesuaren ostean ez genuen lortu EH BILDUREN aldeko botoa. Beraien ekarpenak eskertzen genituen, eta prest geunden horietako batzuk onartzeko, baina, denak ez, hala nola, merkataritzarako eta ostalaritzarako laguntzei buruzkoak, ez baikenuen aurrekontua koadratzen eta, izatez, garapen ekonomikorako jada 56.000 euro baititugu, eta horiei gehitu behar zaizkie 2020an sartutako 30.000 euroak, guztira 86.000 euro egiten dituztenak. Alde horretatik, ez dakit ez zetozen bat aurreikusitako helburuekin edo zenbatekoekin. Hori bada arrazoa, gu prest gaude zenbatekoak berrikusteko, ekitaldia ekonomikoki nola doan kontuan hartuta. Bonuei dagokienez, herritarren artean izandako arrakasta ikusi ondoren, aurten ere aterako dira, baina esperientziak erakutsi digu hobekuntzak egin daitezkeela eta horiek txertatzen saiatuko gara. "* Hitz egiten jarraitu du eta berriro ere eskerrak eman dizkio EH BILDURI egindako ekarpenengatik, eta adierazi du bere aldeko botorik jaso ez arren, eta aurrekontua gauzatzen den heinean eta baliabideek ahalbidetu, proposatu dituzten programetako batzuetan diru gehiago bideratzeko prest daudela, eta ez duela ulertzen, esaten duten bezala, aurreikuspen gehienekin bat eginda, nola ez duten aldeko botorik ematen alde ekonomiko hain txikiengatik, nahiz eta beren erabakia errespetatzen duten. Azkenik, EH BILDURI eskatzen dio bere babesa emateko edo ekarpenak egiteko programatutako jarduerak mahai gainean jartzen direnean.

Alkateak batzorde informatzailearen diktamena bototara jarri badu ere inork ez duelako ezer gehiagorik esateko interesik agertu, bozkatzetarakoan esan direnen laburpen txiki bat egiten da ondoren:

Eluska Irauzu: *"Josuk esan duenaren harira, egia da proposamen bat aurkeztu zenigutela guk egindako proposamenetatik bateren bat onartuz, baina gutxi iruditu zitzaizkigun eta, gainera, ordainetan, aurrekontuen aldeko botoa emateko konpromisoa eskatu zitzaigun. Gainera, horrelako proiektu batekin ez gara eroso sentitzen. Iazko ekainean pandemiak sortutako krisi egoerari aurre egiteko ekintza plan baten alde bozkatu genuen, ona iruditu zitzaigulako. Plan horri baiezkoa eman genion; bertan, partida batzuk murriztea aurreikusi zen, eta galdetu*

genuenean murrizketa horiek adostuak izan ote ziren edo kaltetuek horien berri ote zuten, baietz esan zitzaigun, adostuak izan zirela esan zitzaigun, eta ikusiko balitz beharrezkoa litzatekeela murriztutako partidak hasierako aurreikuspena arte handitzea edo horretarako aukera legokeela, horrela egingo zela. Horrela, baldintza horrekin, gure babesa eman genuen. Gero ikusi dugu ez dela horrela izan, ikusi dugu hori izan dela Goienari gertatu zaiona. Orduan, hori ikusita, ez gara eroso sentitzen baietz bozkatuta".

Josu Ezkurdia: "Ez dut eztabaidetan sartu nahi, ez dut esango gauzak ez direnik zuk esan bezala, baina argi dago gauzak ez direla ondo ulertu. Guk, iaz murrizketak planteatu genituenean, argi eta garbi esan genuen, eta hala geratu zen jasota dokumentuan, zeintzuk ziren gure lehentasunak, dirua falta zela eta murrizketak egon behar zirela. Hortik aurrera, murrizketak jasan dituzten batzuk ulertu dute eta beste batzuk ez. Uste dut denok ulertu behar dugula egoera ez dela erraza inorentzat. Eta hori esanda, eta Goienaren kasua aipatu duzunez, egia da, bai, Goienak hurrengo ekitaldian murrizketa izango duela. Guretzat murrizketa hori gastu txikiagoa da, beraiantzat agian ez da hainbeste aurrekontuaren guztizko zenbatekoari erreparatzen badiogu; baina, hala balitz, guk argi daukagu daukagun dirua banatzerakoan herritarrei eta Eskoriatzako elkartei emango diegula lehentasuna, eta ez, eta errespetuz diot, Debagoieneko beste enpresa bati, eta are gehiago kontuan hartuta askoz diru gehiago jasotzen dutela beste erakunde batzuetatik: Arrasateko Udaletik, Eusko Jaurjaritzatik eta baita Aldunditik ere; eta horiek guztiek guk baino diru gehiago ematen diote. Gure ustez, 6.000 euroko murrizketak ez dio hainbeste eragiten, eta guk nahiago dugu 6.000 euro horiek ostalaritzari edo Musika Eskolari ematea Goienari baino, eta errespetu osoz diot. Eta guk horrela pentsatzen dugu eta horrela jokatuko dugu. Etorrizunari begira, normaltasunera iristen garenean eta guztiontzako dirua egon, denon artean banatuko dugu; baina ez dagoen bitartean, gure lehentasunak argiak dira, dirua herriarentzat da".

Nestor Arana: "Ni ados nago esaten duzunarekin, Josu. Gertatzen dena da kasu honetan komunikazioan diharduen erakunde batez ari garela, eta horrek ondorioak dituela guztion adostasunarekin egiten ez denean. Kontuan izan behar da Kontseilu Errektorean dagoela Udala, eta hor hartzen direla erabakiak. Kontua da Goienak azaroan izan duela horren guztiaren berri, eta guk urtarrilaren 9an. Gaia delikatua dela uste dut, Kontseilu Errektorearekiko hartutako konpromiso bat dagoelako, eta han eman behar da gaiaren berri. Bestalde, uste dut udal talde guztiek aho batez adostu beharko luketela gaia, bestela gaizki uler daiteke eta hori oso arriskutsua da. Gainera, gaineratu nahi dut Eskoriatza dela horrelako zerbait egin duen herri bakarra, gainerakoak ere egoera berean egonda. 2016an murrizketa bat izan zuten eta orain hirugarrena planteatzen da 2021erako. Uste dut hori ez bada egiten guztion arteko adostasun argi eta garden batekin, oso arriskutsua dela, oso gaizki interpreta daitekeela. Eta horrek kezkatzen gaitu. Argudio ekonomikoak bai, baina beti argi gera dadila horren atzean hori justifikatzen duen arrazoi bat dagoela"

Josu Ezkurdia: "Gauza bat argitu nahi dut bakarrik. Guk ez dugu, zuk esandakoaren kontra, konpromisorik hautsi. Guk Goienarekin dugun legezko eta ahozko konpromiso bakarra urtero gaitzen dugun partida ordaintzea da, beste ezer ez. Askok edo gutxi izan daiteke, baina hori ikuspegiaren eta helburuen arabera da. Argi gera bedi ez dugula konpromisorik hautsi".

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek bozkatuta, 6 zinegotzik alde (EAJ/PNVko 5 eta EEEko 1) eta 4k aurka (EH BILDU), Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

2021/01/26
Ohiko osoko bilkura
Pleno ordinario

Lehenengoa.- Hasiera batean onartzea 5.497.404,58 €-ko udal aurrekontua.

Bigarrena.- 2021eko aurrekontua betearazteko araudia eta 2021eko aurrekontu orokorra osatzen duen gainontzeko dokumentazioa hasiera batean onartzea, apirilaren 15eko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz (LED) onartutako Testu Bategineko 445. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko hamabost egunez jendaurrean egoteko epean inolako erreklamaziorik ez balego, onarpena behin betikotzat jotzea.

7.- HERRITARRENTZAKO ARRETA ZERBITZU INTEGRALA EZARTZEA:
Langileen birbanaketari, lanpostu zerrendaren aldaketari eta funtzioen
deskribapenari buruzko memoria eta lanpostu berriei izendatutako hizkuntz
eskakizuna. 2021eko plantilla organikoa.

Herritarrentzako arreta zerbitzu integral berriari (H@ZI zerbitzua) esleitu beharreko giza baliabideei buruz egindako memoria ikusi da, non egungo administrari-lanpostuak amortizatzearen eta H@ZI zerbitzuan lau lanpostu berri sortzearen ondorioz langileak berresleitzea planteatzen den.

Kontuan hartu da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 69. artikuluan xedatutakoa, Estatuko Administrazioako lanpostuak betetzeari buruzko martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 60. artikuluekin lotuta interpretatua.

Langileen ordezkariak ados agertu dira aipatutako memoria teknikoarekin.

Aurrez eztabaidatuta eta bozkatuta, Ogasun batzorde informatzaileak egindako diktamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eskoriatzako Herritarrentzako Arreta Zerbitzu Integrala (H@ZI) ezartzearen ondorioz langileak birbanatzeari buruzko memoria onartzea.

Bigarrena.- 2021. urterako eta ondoren esango den bezala aldatzea lanpostuen zerrenda:

- Ondorengo lanpostuak kentzen dira:

ADMINISTRARI HARRERAGILEA

ADMINISTRARI ZERGABILTZAILA

HIRIGINTZA ETA ZERBITZUETAKO ADMINISTRARIA

2021/01/26
Ohiko osoko bilkura
Pleno ordinario

ADMINISTRARI PARTEKATUA (KULTURA, EUSKARA, GIZARTE ZERBITZUAK ETA HARRERA ZERBITZUA).

- Ondoren esango diren lanpostu berriak sortu dira Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren beharrei erantzuteko; administrazio orokorreko eskalakoak eta administrazio-azpieskalakoak izango direnak. Beraien funtzioak, berriz, 1. eranskinean agertzen direnak izango dira.

H@ZI-IDAZKARITZA ADMINISTRARIA
H@ZI-HIRIGINTZA/OBRAK ETA ZERBITZUAK/ELIZATEAK ADMINISTRARIA
H@ZI-ZERGABILKETA ADMINISTRARIA
H@ZI-GIZARTE ZERBITZUAK/KULTURA/EUSKARA ADMINISTRARIA

Hirugarrena.- Udal honetako euskara zerbitzuak egindako txostenaren eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak egindako txostenaren arabera, sortutako lanpostu bakoitzerako hizkuntz eskakizuna onartzea; hori guztiori Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 97.5. artikuluan eta Euskal Autonomia Elkarteke herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko 86/1997 Dekretuaren 23. artikuluan ezarritakoa betez.

| LANPOSTUA | HIZKUNTZA | ESKAKIZUNA | DERRIGORTASUN DATA |
|---|-----------|------------|--|
| H@ZI- IDAZKARITZA ADMINISTRARIA | 3 | | Lanpostuaren sorrerako osoko bilkuraren data |
| H@ZI-HIRIGINTZA/OBRAK ETA ZERBITZUAK ADMINISTRARIA | 3 | | Lanpostuaren sorrerako osoko bilkuraren data |
| H@ZI-DIRUBILKETA ADMINISTRARIA | 3 | | Lanpostuaren sorrerako osoko bilkuraren data |
| H@ZI-GIZARTE ZERBITZUAK/KULTURA/EUSKARA ADMINISTRARIA | 3 | | Lanpostuaren sorrerako osoko bilkuraren data |

Laugarrena.- 2021erako plantilla organikoa onartzea.

Bosgarrena.- Erabaki horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 15 egun baliouduneko epean interesdunek azter ditzaten eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri Udalbatzarrari.

Erabakiak behin betiko onartutzat joko dira aipatutako epean ez bada erreklamaziorik jartzen; eta ondorio horietarako, Alkateak behin betikotzat joko du erabakia eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

2021/01/26
Ohiko osoko bilkura
Pleno ordinario

Erreklamaziorik aurkeztuz gero, horiek onartzeko edo baztertzeko eta plantilla organikoaren eta lanpostu zerrendaren aldaketak behin betiko onartzeko proposamena egingo zaio Udalbatzarrari hilabeteko epean.

1. ERANSKINA, FUNTZIOAK

LANPOSTU ZERRENDAN H@Zira ATXIKITAKO LANPOSTU BERRIEI ESLEITUTAKO FUNTZIOEN KOADROA.

- H@Ziko LAU lanpostuei esleitutako funtzio orokorrak honako hauek dira:
 - Jendaurreko arreta, Udalbatzarrak onartutako prozeduren eskuliburuan jasotako gai guztietarako gaitutako edozein bideren bidez.
 - Telefono-deiak jasotzea eta bideratzea, telefonogune gisa.
 - Herriari buruzko jendaurreko informazio orokorra ematea.
 - Udalak eskaintzen dituen zerbitzuei buruz aurrez aurreko informazio orokorra ematea jendeari.
 - Udal arlo guztietako administrazio prozeduretako udal tramiteei buruzko informazio orokorra ematea jendeari aurrez aurre.
 - Administrazio-espedienteen tramitazio egoerari buruzko informazio orokorra ematea herritarrari, horietan alderdi interesduna denean.
 - Administrazio espedientei buruzko era guztietako dokumentazioa biltzea, gero dagokion arlora eramateko.
 - Espedienteen egoerari buruzko barne komunikazioa izatea administrazio arloekin.
 - Mota guztietako dokumentuei sarrera-erregistroa ematea.
 - Dokumentuei irteera-erregistroa ematea.
 - Biztanleen udal-errolan altak eta bajak egitea.
 - Errola ziurtagiriak eta agiriak egitea.
 - Herritarrei beste edozein informazio espezifiko ematea espedienteak betetzeko betekizunei eta tramiteen egoerari buruz, udal-teknikariek eman dezaketenaren kalterik gabe.
 - Hauteskunde egunetan laguntzea.
 - Udaleko arloekin etorkizunean egingo diren lankidetzeta-hitzarmenetan ezartzen den beste edozein funtzio betetzea.
 - Arduradunak agindutako antzeko zeregin osagarriak egitea, lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusia dutenak, edo zerbitzuaren arrazoiengatik beharrezkoak direnak, bereziki lanpostua esleitzeko probetan eskatutako ezagutzetatik edo esperientzietatik eratorritakoak, edo lanpostua dela-eta jasotako hobekuntza-ikastaroetan eskuratutakoak.
 - Bere kategoriako udal langileen lana bere gain hartzea, langile horietako bat ez egoteagatik, nagusiak horrela agindutakoan.
- Lanpostu bakoitzaren funtzio osagarriak lankidetzan arituko den arlo edo zerbitzuari dagokionez, honako hauek izango dira:

H@ZI- IDAZKARITZA ADMINISTRARIA:

- (1) Biztanleen errolda eta estatistika eguneratuta edukitzeaz arduratzea.
- (2) Erroldari buruzko zerrendak egitea eta beste administrazio publiko batzuek eskatzen dituzten datuak prestatzea.
- (3) Erroldako datuak hileroko INEra bidaltzeaz arduratzea.
- (4) Iragarki oholean jarritako ediktuak eguneratzea, ofizioak idaztea, jendaurrean jartzeko eginbideak egitea eta organo eskudunei bidaltzea.
- (5) Udaleko zerbitzu telematikoen alta emateko eskaerak tramitatzea, gako bat eta pasahitz bat emanez.
- (6) Errolda jendaurrean jarri beharretik eratorritako tramiteak egitea hainbat helburutarako (hauteskundeak, epaimahaia hautatzea...): jendaurrean jartzea, ofizioa prestatzea eta bidaltzea, jendaurrean egon izanaren ziurtagiria egitea, etab.
- (7) Hauteskunde egunetan laguntzea.
- (8) Sarrera eta Irteeren Erregistro Liburuaren urteko zerrenda eta edizioa egitea.
- (9) Udalak bidaltzen duen posta prestatzea, posta-inprimakiak betez.
- (10) Idazkaritzari laguntzeko administrazio-jarduerak egitea (idazkiak idaztea, mekanografiatzea, dokumentuak fotokopiatzea eta eskaneatzea...), horretarako jasotako jarraibideen arabera.
- (11) Udal langileen lan-ordutegia betetzen dela kontrolatzea. Langile bakoitzaren ordutegiak zehaztea, egutegi patroia eta egutegi espezifikoak definitzea, eta langileen espedienteetako gorabeherak idaztea. Langileen kontrola hileroko ixtea, eta egindako fitxaketak ematea langile bakoitzari, jakinaren gainean egon daitezkeen eta egiazta ditzaten. Informazio hori Alkatetzari edo eskuordetutako zinegotziari helaraztea, eskatzen zaionean.
- (12) Bulegoko materiala erostea.
- (13) Arduradunak agindutako antzeko zeregin osagarriak egitea, lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusia dutenak, edo zerbitzuaren arrazoiengatik beharrezkoak direnak, bereziki lanpostua esleitzeko probetan eskatutako ezagutzetatik edo esperientzietatik eratorritakoak, edo lanpostua dela-eta jasotako hobekuntza-ikastaroetan eskuratutakoak.
- (14)

H@ZI-GIZARTE ZERBITZUAK/KULTURA/EUSKARA ADMINISTRARIA

KULTURA, EUSKARA, GIZARTE ZERBITZUAK

- Arlo ezberdinetako gutunak sailkatu, banatu eta artxibatzea.
- Kanpoko eta barruko dokumentuak jaso eta bidaltzea, eta sinadurak jasotzea, zigilatzea eta abar.
- Artxibo administratiboa eguneratuta izatea.
- Teknikariek tramitatutako espedienteak fotokopiatu eta bidaltzea, eta espediente horiek osatzeko beharrezko dokumentuak eranstea.
- Extraneteko, gizarteneteko, Munigexeko, artxiboko eta arloko erabiltzaileei buruzko datu-baseak eguneratuta izatea.

2021/01/26
Ohiko osoko bilkura
Pleno ordinario

- Idazkiak egin, mekanografiatu, fotokopiatu eta dokumentuak eskaneatzea.
- Jakinarazpenak eta laguntza eskaerak tramitatzea.
- Bere eskumeneko arloetako bilera deiak egitea.
- Arloetako bulego materiala kontrolatu eta berritzea.
- Argazki artxiboa mantentzea (eskaneatuta, antolatuta, artxibatuta eta abar).
- Arduradunak agindutako antzeko zeregin osagarriak egitea, lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusia dutenak, edo zerbitzuaren arrazoiengatik beharrezkoak direnak, bereziki lanpostua esleitzeko probetan eskatutako ezagutzetatik edo esperientzietatik eratorritakoak, edo lanpostua dela-eta jasotako hobekuntza-ikastaroetan eskuratutakoak.

KULTURA ETA EUSKARA:

- Jardueri eta deialdiei buruzko informazioa prestatu eta bidaltzea.
- Prentsa oharrak egitea.
- Publizitaterako materiala prestatu eta zabaltzea.
- Agendako oholak prestatu eta aldatzea hilabetero eta gabonetan.
- Herri bazkari, lehiaketa, ikastaro, antzerki, zinema eta abarretarako kartelak diseinatu, egin eta jartzea.
- www.eskoriatzakoagenda.eus web orria eguneratuta izatea.
- Jaietarako materiala, inauterietako txapelak, mus txapelketarako materiala... prestatu eta egitea.
- Ikastaroetarako, lehiaketetarako eta abarrerako izena emandako pertsonak datu-base batean jasotzea.
- Kultur etxeko gelen egutegia kudeatzea.
- Jendeak eskatutako gelak prestatzea, eta mikrofonoak, musika ekipoa, bideo-proiektagailua, aulkiak eta abar jartzea.
- Tiket eta sarrera salmentatik ateratako dirua zenbatu eta banketxean sartzea, eta baita ikastaroengatik kobratutakoa ere.
- Txokolatadarako, txistor janerako eta abarrerako janariak erostea.
- Ekitaldiak antolatzeko aurrekontuak eskatzea.
- Anbulantzia beharrezko den ekitaldietarako (kontzertuak, mendi bizikleta lasterketak eta abar) ambulanzia bertan egon dadin arduratzea.
- Biltegietatik materiala ekartzea eta eramatea: kazolak, baxera...

GIZARTE ZERBITZUAK:

- Udalaren, etxez etxeko laguntzaren eta gizarte larrialdietarako laguntzen ordainketen egoera-orriak betetzea.
- Lan bila dabiltzanei buruzko datuak erregistratu eta eguneratzea.
- Enplegu panela eguneratuta edukitzea.
- Pasadizokoen erregistroa eguneratuta izatea, eta janari txartelak ematea.
- Ehun urte bete dituzten pertsonen erregistroa eramatea.
- Jubilatuei egiten zaien omenaldian laguntzea.

- Etxez etxeko laguntzaren kitapena extranet bidez egitea.
- Elkartentzako jakinarazpenak prestatu eta bidaltzea.

H@ZI-HIRIGINTZA/OBRAK ETA ZERBITZUAK/ELIZATEAK ADMINISTRARIA

HIRIGINTZA:

- Hirigintza arloari zuzendutako korrespondentzia jasotzea eta dagozkion administrazio espedienteak hastea.
- Hirigintza arloan martxan dauden espedienteak tramitatu eta horien jarraipena egitea: obra-lizentziak, jarduera-lizentziak, lehen okupaziokoak, etab.
- Hirigintza planeamenduko espedienteetan lan administratiboak egitea.
- Hirigintza batzordetarako deialdiak prestatzea, aurreko bilkurako akta eta aztertu beharreko dokumentazioa bidaltzea batzordeko zinegotziei.
- Arloan egindako dokumentuak transkribatzea: esleipenak, hainbat idazki, etab., eta administratiboki tramitatzea.
- EAeko Lurralde Datu Bankua urtero eguneratzea bizitegi-lurzoruari eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokienez, udal-plangintzan aurreikusitako eremu bakoitzaren egikaritze-mailari buruzko informazioa emanda.
- EUSTATi eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistikak bidaltzea, hilero jarraipena eginez obra handiko lizentziei eta etxebizitza babestuetarako lortutako lurzoruari. Halaber, urtean behin, alokairuko etxebizitzaren udal-parkearen berri emango da.
- Udal kale-izendegia eguneratzea, eta eguneratzeak Udaleko estatistika-arduradunari eta hainbat enpresari jakinaraztea: Iberdrola, Telefónica, Euskaltel, etxebizitzaren sustatzaileak, etab.
- Dokumentuak fotokopiatu eta eskaneatzea eta faxak bidaltzea.
- Arloko instalazioak eta baliabideak egoki erabili, zaindu eta mantentzea.
- Arduradunak agindutako antzeko zeregin osagarriak egitea, lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusia dutenak, edo zerbitzuaren arrazoiengatik beharrezkoak direnak, bereziki lanpostua esleitzeko probetan eskatutako ezagutzetatik edo esperientzietatik eratorritakoak, edo lanpostua dela-eta jasotako hobekuntza-ikastaroetan eskuratutakoak.

OBRAK ETA ZERBITZUAK:

- Obrak eta Zerbitzuak arloari zuzendutako korrespondentzia jasotzea eta dagozkion administrazio espedienteak hastea.
- Arloari buruzko espedienteak tramitatu eta horien jarraipena egitea: kexak, kolektorera isurketak egiteko baimenak, dirulaguntza eskaerak, etab.
- Hilerrian hobiratzen diren eta hobitik ateratzen diren gorpuen erregistroa eguneratuta edukitzea, eta gorpuzkiak lekuz aldatzearen ondoriozko administrazio

tramiteak egitea: herritarren eskaerei erantzun, lanak koordinatu hilerriko langileen eta hildakoen senideen artean, senideekin zuzenean zehaztu gorpuzkiak nora eraman (hezurtegi nagusira, hezurtegi partikularrera, hileritik kanpo) eta plakaren testua, ondoren aurrekontuak eskatu, gastua onartu, plaka enkargatu, ondo dagoen ikusi eta hilerriko langileei emateko bere lekuan jar dezaten. Hezurtegi partikularren tituluak ematea. Horien berri zehatza ematea Dirubilketa arloari, kobra dezan.

- Brigadako langileentzako askotariko dokumentazioa egitea.
- Erosketa eta gastu txikien prozedura administratiboki tramitatzea: aurrekontuak eskatzea, kontuhartzaitzaren oniritzia lortzea, gastua onartzeko alkatetzaren erabakia idaztea eta sinadurak biltzea.
- Dokumentuak fotokopiatu eta eskaneatzea eta faxak bidaltzea.
- Arduradunak agindutako antzeko zeregin osagarriak egitea, lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusia dutenak, edo zerbitzuaren arrazoiengatik beharrezkoak direnak, bereziki lanpostua esleitzeko probetan eskatutako ezagutzetatik edo esperientzietatik eratorritakoak, edo lanpostua dela-eta jasotako hobekuntza-ikastaroetan eskuratutakoak.
- Hondakinen edukiontzietarako txartelak: txartelak egiaztatu eta berriak egin, titular aldaketak eta gorabeheren berri ematea Hondakinen Kudeaketa Bulegoari.
- Zaborrontziak eta birziklatutako olio ontziak eskatu Mankomunitateari, eta eskatzen dituzten herritarrei eman.

UDAL ARTXIBOA:

- Udal arloetako dokumentazioa eta espedienteak jaso, sailkatu eta antolatzea dokumentuak sailkatzeko eta antolatzeko artxibo orokorrerako ezarritako sistemari jarraituz.
- Artxibo orokorreko dokumentazio-eskaerei eta espediente-eskaerei erantzutea, eskatutako dokumentazioa emanda eta irteerak eta sarrerak kontrolatuta.

H@ZI-ZERGABILKETA ADMINISTRARIA

ZERGA ERROLDAK/LIKIDAZIOAK:

- Ibilgailuen, zaborren, telebanaketaren, OHZen, etxez etxeko laguntzaren, ibien, alokairuen, azokaren, mahai eta aulkien eta abarren aldizkako bidalketak egiteko datu-baseak kontrolatzea eta kudeatzea. Erroldak baliozkotzea, horiek prestatzea onarpena jasotzeko eta iragarkia GAOn argitaratzea. Zerga egutegia.
- Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga (gainbalioa), obren gaineko zerga eta tasa, bide publikoaren okupazioaren gainekoa eta udalaren beste edozein tasa edo zerga likidatzea. Likidazioak onartzeko erabakiak prestatzea eta likidazioak jakinaraztea.
- KARGUAK edo aitortutako eskubideak sortzea eta onartzea.
- IZFEko gure aplikazioko (e-fiskalak) tarifak mantentzea indarreango udal ordenantzen arabera.

DIRUBILKETA:

2021/01/26
Ohiko osoko bilkura
Pleno ordinario

- Bilketa-kontuen kontrola egitea eta kontu horiek aitortutako eskubideen sarrerekin edo DATEkin koadratzea.
 - Sarreraren, balio gabetuen eta preskribatuen datak ixtea.
 - Diru-bilketaren ekitaldia ixtea.
 - Dirubilketari buruz izandako eskaerak/erreklamazioak jakinaraztea Ogasun batzordeari.
 - Zerga-bilketaren aplikazioan edota e-fiskalak aplikazioan zergadunen eskaerei erantzuten dieten erabakiak jasotzea. Hartutako erabakien jarraipena egitea, gauza daitezten.
 - Nahitaezko diru-bilketa:
 - o Premiamendu probidentziak ematea. Betearazpen KARGUA.
 - o Jakinarazpenak. Jakinarazpen datak.
 - o Banku-erakunde atxikitzailiekiko harremana.
 - o Banku-kontuen enbargoa zuzentzea.
 - o Banku-erakundeetan egindako saldo-atxikipeak betearaztea.
- KATASTROA:
- Katastroarekin bitarteko aholkularitza. Zerga lokalak.

OROKORRA: Arduradunak agindutako antzeko zeregin osagarriak egitea, lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusia dutenak, edo zerbitzuaren arrazoiengatik beharrezkoak direnak, bereziki lanpostua esleitzeko probetan eskatutako ezagutzetatik edo esperientzietatik eratorritakoak, edo lanpostua dela-eta jasotako hobekuntza-ikastaroetan eskuratutakoak.

8.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2021eko AURREKONTUARI EGOKITZEA.

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ezenez, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikulua c) letran apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako azken paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarrak 2019ko abenduaren 17an hasiera batean hartutako erabakia behin betikotzat bihurtu zen.

Plan horrek, 4. eta 11. artikuluetan, eranskinako dokumentuetara bidaliz, 2020ko ekitaldirako aurreikusitako laguntzak aurreikusten ditu.

2021eko ekitaldirako aurrekontua onartuta, planeko ERANSKINAK aurrekontu horren edukira egokitu behar dira.

Aurrez esandako guztiarengatik eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, 6 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 5 eta EEEko 1) eta EH BILDUko 4 zinegotziek aurka bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2. ERANSKINEAN jaso bezala eguneratzea 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoaren ERANSKINAK, plana 2021eko ekitaldiko aurrekontuen edukira egokitzeko.

9.- GALDE-ESKEAK.

Luis Ezeiza Ikastetxearen teilatuko obrak

Eskolako teilatuan dauden itoginei buruz guraso batzuek duten kezka azaldu ondoren, eta gogora ekarri ondoren iaz Udalari dirulaguntza bat eman zitzaiola hura konpontzeko, Nestor Aranak Josuri galdetu dio obra horien gaia nola dagoen.

Josu Ezkurdiak erantzun dio hainbat jarduera egin nahi direla Luis Ezeizan, eta horien artean dagoela teilatua konpontzea, aurten egin nahi dena. Jarraitu du: "*Teilatuko arazoak konpondu nahi ditugu, urteetatik datozen arazoak baitira. Iaz hasi nahi genuen, baina pandemiaren kontuarekin inbertsioak hondora joan zitzaizkigun. Aurten egiteko asmoa dugu kreditu nahikoa izandakoan. Gainera, hori ez ezik, beste obra bat ere egin nahi da: patioa konpontzea; patioa nahiko egoera txarrean dago, eta, orain arte unean uneko konponketak egin ditugun arren, jarduketa globalagoa egin behar da, eta horrek ere diru asko eskatzen du. Asmoa bi obrak aurten egitea da*".

Nestor Aranak galdetu dio ea zer gertatzen den Eusko Jaurlaritzak teilatuko lanetarako iaz eman zuen dirulaguntzarekin.

Josu Ezkurdiak erantzun dio eman baziren ere, pandemiagatik obrak gauzatu ezin izan zirenez, laguntza ez dela jaso; aurten berriro eskatuko dela, Eusko Jaurlaritzak urtero ateratzen duen laguntza-programa delako.

Nestor Aranak galdetu dio ea emandako dirulaguntza erabili ez izanak penalizaziorik ekar diezaiokeen Udalari eskaera berriro egiteko orduan.

Josuk erantzun dio ezetz, jaso ez den laguntza dela eta aurten ere eskatuko dela. Gaineratu du hasiera batean bi jarduketak egin nahi direla; teilatuko obretarako dirulaguntzarik ez badago, agian bi ekitalditan egin behar direla, baina biak egiteko asmoa dagoela.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:50ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

2. ERANSKINA

LERRO ESTRATEGIKOAK, HELBURU ZEHATZAK ETA LAGUNTZA PROGRAMAK ETA LERROAK. (2021eko EKITALDIA)

1. LERRO ESTRATEGIKOA: KULTUR DINAMIZAZIOA.

1. Helburu estrategikoa:

Herriko kultur egiturari laguntza eman, zabaldu eta sustatu, parte hartzen duten eragileen profesionaltasuna bultzatuz eta kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatuz.

2. Helburu zehatzak:

1.- Herriko kultur egiturari laguntza eman, zabaldu eta sustatu, kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatuz.

2.- Herritar orori zuzendutako ondorengo diziplinetako sorkuntzara, ekoizpena eta kultur hedapenera bideratutako programa eta jarduerak babestea, zabaltzea eta sustatzea: musika, dantza, antzerkia, folklorea, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, argitalpenak eta abar.

3.- Gazteen parte hartzea lagundu, zabaldu eta sustatzea gazteentzako jarduerak antolatuz.

4.- Euskal historiaren eta kulturaren –bereziki, Eskoriatzakoarenak- balore propioak transmititzeko programak edota jarduerak lagundu, zabaldu eta sustatzea.

5.- Euskaraz edo euskararen erabilera sustatzeko egindako programak edota jarduerak lagundu, zabaldu eta sustatzea.

3. Egikaritze epea:

Urteroko deialdiak.

4. Finantziazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

5. Dirulaguntzak emateko prozedura:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko dirulaguntzak norgehiagoka prozedura bidez edo aurrekontuan laguntza izendunak dituzten elkarteekin egindako hitzarmen bidez emango dira.

6. Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana deialdietarako oinarriak eginez edota berriazko lankidetzak hitzarmen bidez egingo da ondorengo dirulaguntza lerro bakoitzerako.

7. Dirulaguntza lerro zehatzak:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzan egingo diren programa eta kultur jardueretarako dirulaguntzak.

HARTZAILEAK: Deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

HELBURUA: Urtean zehar Eskoriatzan egiten diren kultur programa eta jardueri diruz laguntzea.

LORTU GURA DENA: Herrian kalitatezko kultur jarduerak eskaintzea eta herritarren eta kultur elkarten parte hartzea eta lankidetzaz sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 2.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.00.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzako Beheko Errota musika eskola diruz laguntzeko programa.

HARTZAILEAK: Beheko Errota musika eskola.

HELBURUA: "Beheko Errota" musika elkarte pribatua aspalditik Eskoriatzan egiten ari den lana bultzatzea, eta eskoriatzarrei musika formazioa emateko eta musika zabaltzeko lanetan laguntzea.

LORTU GURA DENA: Musika eskola zerbitzua ematea eskoriatzarrei eta kontzertuak eskaintzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Diru laguntza izenduna, hitzarmen erregimenean

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 49.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.326.10.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ORRI-PUNTUAK AUKERATZEKO LEHIAKETA

HARTZAILEAK: Eskoriatzako herritarrak.

HELBURUAK: Datorren urtean, hau da, 2021ean, udal bibliotekan erabiliko diren orri-puntuak aukeratzeko lehiaketa.

LORTU GURA DENA: Irakurzaletasuna sustatzea gizartean gehiago ezagutzera emanez biblioteka zerbitzua.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 150 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.332.10.01 partida

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: EZ DA JASOTZEN.

E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: FERIXA

HARTZAILEAK: Arizmendi Koop. Elkartea

HELBURUAK: Arizmendi Koop. Elkarteari diruz laguntzea urtero antolatzen duen Ferixak sortutako gastuak finantzatzeko.

LORTU GURA DENA: Gastronomia, artisautza eta euskal folklorea protagonista dituen euskal feria tradizionala sustatu eta zabaltzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean

2021eko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 2.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.431.10.01 partida

F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Aste zapatista antolatzeko dirulaguntza.

HARTZAILEAK: TEPEZ Elkartea

HELBURUA: Aste zapatista antolatzeko dirulaguntza. Besteak beste hitzaldiak, mahai-inguruak, kontzertuak, ikus-entzunezkoen emanaldiak, umeentzako ekintzak, "zapatista eguna" eta sukaldaritza tailerrak antolatzen dira.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 500 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.50.01 partida

2. LERRO ESTRATEGIKOA: KIROL SUSTAPENA.

- Helburu estrategikoa:

Herritar guztiei beraien kirol eskaera asetzeko aukera ematea eta bizi kalitatea hobetzeko jarduera osasungarriak sustatzea kirol erakunde, elkarte eta federazioekin elkarlanean arituz.

- Helburu zehatzak:

Ahalik eta jende gehienak kirola egitea sustatzea ohitura osasungarri eta gomendagarri bezala.

Elkartegintza sustatzea kirola egitearen ondorioak optimizatzeko modu bezala.

Herriko kirol elkarteekin elkarlanean aritzea jarduerak egiteko zein kirol instalazio sarea hobetzeko.

Lagatako kirol instalazioen kalitatea hobetzea eta herritarrek horiek erabiltzea.

Oinarrizko kirol federatua sustatzea kirol elkarteetan.

Eskola kirola sustatzea ikastetxe publikoetan eta hitzartutako pribatuetan.

Kirola kalean egitea sustatzea.

- Egikaritze epea:

Urteroko deialdiak.

- Finantziazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera, ekarpen publiko edo pribatuekin osatu ahal izango direnak.

- Dirulaguntzak emateko prozedura:

Norgehiagoka, eta zehazki, lerro zehatz bakoitzean adierazitakoa.

- Dirulaguntza lerro zehatzak:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskola Kirola

HARTZAILEAK: LEK

HELBURUA: Urteetan Leintz Eskola Kirola, beste udal batzuekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eskualdean eskola kirola sustatzeko egiten ari den lana bultzatzea.

LORTU GURA DENA: Eskola kirola sustatzea 3. LH-tik 2. DBH-raino

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 17.121,82 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.10.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzako Kirol Elkartea

HARTZAILEAK: Eskoriatza Kirol Elkartea.

HELBURUA: Eskoriatzako Kirol Elkarteari diruz laguntzea kirol federatua sustatzeko ohiko jarduerak egiteko.

LORTU GURA DENA: Kirola egitea sustatzea, batez ere, gazteengan.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 30.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.20.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Programatutako kirol jarduerentzat eta irabazi asmorik gabeko Eskoriatzako kirol talde eta elkarteentzako dirulaguntzak. EZ DA JASOTZEN.

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntza KARATE ATAMA ELKARTEARI

HARTZAILEA: KARATE ATAMA ELKARTEA

HELBURUA: Karate Atama Elkarteari diruz laguntzea urtean zehar antolatzen dituen kirol jarduerak sortutako gastuak finantzatzeko.

LORTU GURA DENA: Kirol hori eta autobabes teknikak sustatzea, batez ere, gazteengan.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.70.01 partida

E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ARIZMENDI KIROL ELKARTEA

HARTZAILEAK: Arizmendi Kirol Elkartea

HELBURUA: Arizmendi Kirol Elkarteari diruz laguntzea pilota, areto-futbola eta igeriketa taldeak sustatzeko egiten duen lana egiteko.

LORTU GURA DENA: Pilotako, areto-futboleko eta igeriketako benjamin eta alebin taldeak dinamizatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 2.500 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.80.01

3. LERRO ESTRATEGIKOA: GIZARTE EKINTZA

2021/01/26
Ohiko osoko bilkura
Pleno ordinario

- Helburu estrategikoa:

Eskoriatzarren bizi kalitate eta gizarte ongizate mailak igotzea.

Pertsonen, familien eta gizarte taldeen, batez ere bazterketa arriskuan baldin badaude, berri izateko eta hainbat egoera prebenitzeko eta esku hartzeko mekanismoak sustatzea.

Gizarte kalteberatasun egoeran dauden herritarren gizarteratzea sustatzea.

Herriko emakumeen eta hirugarren adinekoen elkarteek jarduera parte hartzaileak, prestakuntza ematekoak eta ludikoak antola dezatela sustatzea.

Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenak sustatzea eta elkarten eta erakundeen parte hartzea eta jarduerak bultzatzea arlo honetako udal eskuduntzak garatzerakoan eraginkortasun handiagoa lortzeko.

Herri txiroenen garapenean laguntzea herritarren sentiberatasuna handitzeko ekimenak sustatuz eta bizi baldintzak hobetzen laguntzea elkartasunerako eta toki garapenerako proiektuetarako dirulaguntzak emanaz.

Hirugarren adineko pertsoneri arreta duina bermatzea egoitzan.

- Helburu zehatzak:

Gizarte zerbitzuetako baliabideei eta horiek eskuratzeko bideei buruzko informazioa ematea.

Gizarte kalteberatasun egoeran dauden kasuei oinarrizko beharrak, behar zehatz eta ezohikoak, norbanakoak eta familiakoak estaltzea.

Zailtasun edota gizarte arrisku egoera murrizteko edo desagertzeko lan egitea.

Arazoak edo zailtasunak agertzea ekiditea, arrisku faktoreak antzemandakoan modu prebentiboan esku hartuz.

Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimena, erakundeekin jarduera koordinatua indartzea eta gizarte parte hartze aktiboa sustatzea.

Jubilatuena elkarteak eta emakumeen elkarteak jarduerak egitea sustatzea eta erabiltzen dituzten lokal sozialak mantentzen laguntzea.

Herriko GKEei laguntzea beraien ekimen eta lankidetzan proiektuetan herri pobreentzako eta garapen bidean daudenentzako ekarpen gisa.

- Egikaritze epea: Urteroko deialdiak.
- Finantziazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

- Dirulaguntzak emateko prozedura:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko dirulaguntzak prozedura hauen bidez emango dira: norgehiagoka, aurrekontuan izenarekin agertzen diren erakundeekin hitzarmen bidez tramitatuta eta interes sozial, ekonomiko edo humanitarioarengatik zuzenean emateko laguntza lerroak.

- Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana deialdietarako oinarriak eginez edota berriazko lankidetzak hitzarmen bidez egingo da ondorengo dirulaguntza lerro bakoitzerako.

- Dirulaguntza lerro zehatzak

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntza Olazar jubilatutako elkarteari.

HARTZAILEAK: Olazar jubilatutako elkartea.

HELBURUA: Olazar jubilatutako elkarteari diruz laguntzea beraien ohiko jarduerak egiteko.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzako nagusien bizi kalitatea hobetzea eta herrian parte hartze handiago izan dezatela sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.500 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.337.10.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntzak GKEei

HARTZAILEAK: Beraien jarduera programaren helburuarekin bat etorri eta Eskoriatzan egoitza duten edota jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakunde edo elkartek (GKE).

HELBURUA: Gobernuz kanpoko erakundeek dirulaguntzak ematea garapen bidean dauden herrietako biztanleen baldintza sozioekonomikoak hobetzera zuzendutako garapenerako lankidetzak programak gauzatzeko.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzan presentzia duten gobernuz kanpoko erakundeek bidez lankidetzak proiektuen garapenean laguntzea, eta era berean, herritarren artean boluntariora sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 7.500 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.230.20.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: TRATAMENDUAK JASOTZEKO DIRULAGUNTZAK.

HARTZAILEAK: substantzia batekiko edo bestelako menpekotasun bat duten herritarrak.

HELBURUA: Tratamendua jasotzeko bidaia gastuak ordaintzea.

LORTU GURA DENA: Drogamenpekotasuna duten eskoriatzarrei osatzeko tratamendua eskuragarri egitea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 4.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.231.60.01 partida

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Beraien jarduera gizarte ekintzetan egiten duten elkarteentzako dirulaguntzak.

HARTZAILEAK: Beraien jarduera Eskoriatzan egiten duten edo eskoriatzarrak hartzen dituzten edo eskoriatzarrei zerbitzuak ematen dizkieten legez eraturako eta dagozkion erregistro publikoetan inskribatutako eta programa honetako helburuarekin bat datozen elkarteak.

HELBURUA: Beraien jarduera gizarte ekintzaren arloan egiten duten elkarteei dirulaguntzak ematea beraien funtzionamendu gastuetarako zein beraien elkartearen jardueraren xede diren taldeei zuzendutako programa zehatzak egiteko edota zerbitzuak emateko.

LORTU GURA DENA: Administrazioaren gizarte ekintzaren lan osagarriak egiten dituzten elkarteen jarduerak sustatzea eta elkarte horiek herrian izatea bultzatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: Guztira: 5.000 €:

FINANTZIAZIOA: 0300.481.230.00.01 partida: 4.000 €

0300.481.231.60.01 partida: 1.000 €

E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntza: Larrialdi plana.

HARTZAILEAK: behar beste baliabiderik ez duten herritarrak.

HELBURUA: dirulaguntza ematea premia egoeran daudenei.

LORTU GURA DENA: gizarte talde ahulenen oinarrizko beharrei erantzutea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 50.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.231.30.01 partida

F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntzak etxegabetuei

HARTZAILEAK: etxegabetuak eta kaleratzeak STOP

HELBURUA: Etxegabetuei beraien defentsarako eta aholkularitzarako zein Kaleratzeak STOP taldeari etxegabetuei laguntzeko beraien ohiko jarduerarako dirulaguntza ematea.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzan egon daitezkeen etxegabetuei erantzun bat ematea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Zuzena

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.231.80.01 partida

G) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: JOSE ARANA PATRONATUARI DIRULAGUNTZA

HARTZAILEAK: Jose Arana Patronatuaren Fundazioa.

HELBURUA: Egoitza egokitzeko obrak egiteko Fundazioak eskatutako eta finantza-erakundeek emandako maileguren amortizazioa finantzatzea.

LORTU GURA DENA: Jose Arana fundazioak ostatu alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizitzen jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsonen. Eta, Eskoriatzako Udalak bereziki garrantzitsutzat jotzen du eskoriatzarren ongizaterako fundazioak bere jarduerarekin jarraitzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 8.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.231.91.01

H) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ATXORROTX HIRUGARREN MUNDURAKO ELKARTEA

HARTZAILEAK: ATXORROTX HIRUGARREN MUNDURAKO ELKARTEA

HELBURUA: ATXORROTX HIRUGARREN MUNDUKO ELKARTEAK Atxorrotx egunean bakarrik ongintza edo gizarte helburuekin jartzen duen tabernak sortutako gastuak finantzatzen laguntzea.

LORTU GURA DENA: Taberna jarduerarekin lortutako irabaziak handitzea, irabazi horiek ongintza helburuetarako erabiltzeko.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.230.21.01

I) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: JANARI BONOAK

